



Euskonews Gaztea. Gazteentzat gazteek egina / Zuriñe Velez de Mendizabal [et al.]. - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2008.  
60 or. : ir. ; 20 cm  
ISBN: 978-84-8419-165-0  
I. Velez de Mendizabal, Zuriñe II. Tit.

L. G.: SS 1644/08

Michelena artes gráficas - Astigarraga (Gipuzkoa)

# Euskonews Gaztea. Gazteentzat, gazteek egina

Liburuxka honetan bildutako lanak **EUSKONEWS GAZTEA** agerkari elektronikoan argitaratu diren gutxi batzuk besterik ez dira eta elkarrizketa, artikulua zein erreportaje osatutakoa da.

**EUSKONEWS GAZTEA** Eusko Ikaskuntzaren ekime-  
nez sortutako eta euskara hutsezko astekari elektro-  
niko bat da. Aurrenekoz 2007ko urtarrilaren 12an  
ikusi zuen argia eta ostiralero jartzen da sarean. Ber-  
tan, Euskal Herriko (Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Nafa-  
rroa eta Ipar Euskal Herria) ikastetxe ezberdinetako  
ikasleek hartzen dute parte eta baita mundu zabale-  
ko zenbait kolaboratzailek ere.

Eskerrik asko Euskonews Gaztea posible egiten  
duzuen guztioi!

<http://gaztea.euskonews.com>



## **Elkarrizketak**

IRURETA, HARITZ. Graffitigilea. “Egunen batean euskal graffiti estilo bat egotea gustatuko litzaidake” ..	11
AGIRRE, IONE. Ingeniaria. “Txinan ikusten ditugu emakumeak hemen ikustera ohituta ez gauden lanak egiten; eraikuntza lan asko egiten dute” .....	14
ISASI, IÑAKI. Euskalteleko txirindularia. “Batuetan autoekin sustoak hartu ditut entrenatzerakoan, baina orain gutxiago; jendea mentalizatzen ari da” .....	18
JAIO, KARMELE. Idazlea. “Zure burua hobeto ezagutzeko aukera ahalbidetzen du idazteak” .....	22
BASURKO, UNAI. Itsasgizona. “159 egun itsasoan bakarrik egon arren, denbora gutxi nuen dibertimenturako” .....	25
INTXAURRONGO, SILVIA. Cuatro telebista kateko aurkezlea. “Kameraren atzean edo aurrean, kazetari bera naiz... Irratian edo telebistan, lanean edo etxean... Niretzat, kazetaritza ez da lanbide bat, baizik eta bizi modu bat” .....	28
ALBERDI, UXUE. Bertsolaria. “Gozemenerako hizkuntza euskara dut, tristurako edo amorrurako hizkuntza ere euskara dudana bezala” .....	32

## **G a i a k**

MAILLE, MIKEL; BORTAYROU DAGUERRE, KILMEN; NOYER-LUCOT, LUCILE Nazioarteko Graffiti hiriak .....	39
ERREMUNDEGUY, IHINTZA Homosexualitatea: naturaren kontra doan joera? .....	43
GARRANZO, IRATXE; SALGADO, UNAI; OLANO, NEREA; ORGAZ, ANDER; FERNANDEZ, HAIZEA BILBOKO BEGOÑAZPI IKASTOLA Gazteon emantzipazioa .....	46
VELEZ DE MENDIZABAL, ZURIÑE Euskal piratak .....	49
BADIOLA, ANE; MITXELENA, OLATZ; ORKAIZAGIRRE, OIANE; TORRES, JON ERRENTERIAKO OIARTZO IKASTETXEA Oartzungo kuestazioa. Inauterien iragana eta oraina .....	52
FONTANEDA ELGUEA, JAIZKI; RODRÍGUEZ, SUSANA Abenturak trenez: Singapurretik Arabara .....	55

KARRIZKETAKELKARRIZKETAKELKARRIZKETA  
RIZKETAK**ELKARRIZKETAK**ELKARRIZKETAKE

KETAKELKARRIZKETAKELKARRIZKETA

KELKARRIZKETAKELKARRIZKETA

ELKARRIZKETAKELKARRIZKETAKELKARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

RIZKETAKEARRIZKETAKEARRIZKETAKEARRIZKETAKE

KETAKTAKELKARRIZKETAKEARRIZKETAKEARRIZKETAKE

KELKARRIZKETAKEARRIZKETAKEARRIZKETAKEARRIZKETAKE

ELKARRIZKETAKEARRIZKETAKEARRIZKETAKEARRIZKETAKE

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

RELKARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

.KARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA



ETAK**ELKARRIZKETAK**ELKARRIZKETA

.KARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA


ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA

ARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETAARRIZKETA



<http://gaztea.euskonews.com>

**Gazte hauek Euskonews Gaztearekin kolaboratu dute 2008. urtean.  
Etorri nahi al duzu gurekin aurrerantzean?  
Ateak zabalik dituzu.**





# Haritz Irureta

Graffitigilea



“Egunen batean euskal graffiti estilo bat egotea gustatuko litzaidake”

**ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL ETXABE**

Argazkiak: **Haritz IRURETA**

*Marraztea eta bodyboard egitea atsegin du zarauztar gazte honek. Arte Ederrak ikasi zituen Leioako campusean. Bere ilusioa egunen batean euskal graffiti estilo propio bat egotea da. Kamisetak, infografiak eta graffitiak egiten ditu. Bere ezizena: TT3 da*

**Marraztea gustuko duzula daki ezagutzen zaituen edonork, baina nondik datorkizu zaletasun hau?**

Gogoratzen dut COU ikasten ari nintzenean hasi nintzela filosofiako klaseetan marrazkiak—eta egiten.

**Leioan ikasi zenuela entzun dugu...**

Halaxe da. Arte Ederrak ikasi nituen bertan, eta arte grafiko mundutik bideratu nintzen. Hala ere, hasiera batetan zalantzan egon nintzen Informatika edota Arte Ederrak ikasi. Orain informatika arte ederretan lantzen dut.

**Esaterako?**

Bi horiek uztartuz infografia egiten dut, asko gainera.

**Hala ere, irakasle moduan egiten duzu lan.**

Irakasle ari naizen laugarren urtea da hau. Plastika, informatika eta bideogintza eman ditut eta gaur egun goi-mailako ziklo batean diseinua ematen dihardut. Lana bera asko gustatzen zait.

**Baina infografiak egiteaz gain, ezaguna zara mural eta graffitiak egiteagatik.**

Bai. Esate baterako, Euskal Herriko Graffiti Lehiaketan parte hartu nuen eta nire bi lan ikus daitezke, bata Mendaron eta bestea Getxoko hondartza batean. Bestalde, Zarautzeko merkatuan ere badago bat, 80 metro dituena. Hau inoiz egin dudan lanik handiena da.



### **Zure kabuz egin al dituzu?**

Egia esan merkaturakoa Zarautzeko Udalaren enkarguz egin nuen. Antoniano ikastetxeak 2000.urtean beste bat egiteko enkargua egin zidan, 40 metrotakoa. Eta bestalde, Lauaizeta Ikastolan ere hango ikasleekin 40 metro inguruko graffitia egin genuen.

### **Baina enkarguez gain kalean ere egingo zenituen...**

Kalean mordoxka bat egin ditut eta gainera, etxean ere badituz batzuk. PVC gainean koadro bezala jartzeko egin ditut inpresio digital batzuk.

### **Jaso al dituzu kritikarik egindako graffitiengatik?**

Ez, egia esan ez dut asko praktikatu kalean. Batez ere enkarguengatik egin izan ditut nire lanak. Gainera, graffitiak egiten ikasteko eskolak ere eman ditut. Alde horretatik, aipatu nahi dut toki ofizialetan alde batetik graffitia bultzatu nahi dela eta bestetik ez. Hau da, jendeak graffiti ikastaroak egin ditzan nahi dute eskolak antolatuz, baina aldi berean, ez dute kalean bat ere ikusi nahi.

### **Horren harira, zein da kaleko graffitiei buruz duzun iritzia?**

Nik uste dut zenbait toki oso dotoretuta daudela irudiekin eta etekina atera diotela. Eta beste batzuetan marrazkia

ez dator lekuarekin bat eta ez zait egokia iruditzen. Nik esaterako, EuskoTreneko tren bat margotu nahiko nuke. Baina gauez egin beharrean, arduradunekin hitz egin, akordio batetara iritsi eta kanpotik eta barrutik margotzea gustatuko litzaidake. Hala, zerbait deigarria, estetikoa eta txukuna irtengo litzateke.

### **Graffitigile bakoitzak ezizen bat izan ohi du...**

Baita nik ere! TT3 (Pi-hiru). Nire abizenetik dator: Iru, Piru...

### **Zure lanak egiteko inspiratzen zaituen zerbait al dago?**

Egia esan ez dut orain arte pentsatu. Infografia egitean kotxeak hartzen ditut, letrak, aurpegiak, eraikuntzak... Normalean deigarria suertatzen zaidan edozer. Bestalde, eguneroko gauzek eta ikusi dudak argazkiren batek ere inspiratzen nau. Baina batez ere, hizkiak gustatzen zaizkit.

### **Kamisetak ere egin dituzu.**

Halaxe da. Serigrafian murgildu nintzen karrera amaituta, bi urte eta erdiz. Beti ateratzen nuen tartetxo bat nireak egiteko. Azken aldiak badut gogoia, zenbait marrazki ere eginak ditut baina nahi baino gutxiago egiten ditut.

### **Eta jendeak erosten al dizkizu?**

Jarri izan ditut saltzen zenbait dendatan. Orain tarteka egiten ditut kamisetak eta lagunei saltzen dizkiet. Lagun onak ditut, eta egia esan, nahiko engainatuta daude... (barrez)

### **Ikusten denez, arlo desberdinak jorratu dituzu. Non sentitzen zara erosoan?**

Egia esan denetan moldatzen naiz ondo. Nik irudi bat sortzen dudanean horri aplikazio desberdinak emateko aukera dut. Ordenagailua askotan erabiltzen dut, batez ere Freehand programa, eta honek irudia hondatu gabe edozein tamainatara handitu eta txikitzeko aukera ematen dit.

Beraz, marrazki berdina mural baterako edo serigrafiarako erabili dezaket. Hala ere, zuzenean ere egiten

***“Jendeak graffiti ikastaroak egin ditzan nahi dute eskolak antolatuz, baina aldi berean, ez dute kalean bat ere ikusi nahi”***



ditut graffitiak,  
eta bere xarma du, nahiz  
eta emaitzan nabaritzen den desberdinta-  
suna, detaileak direla eta... Baina bi mundu desberdin  
dira.

### **Musikarekin ere baduzu harremana...**

Bai. Lagun batekin performance bat egiten dut. Laguna-  
ren ezizena Peli da eta bion ezizenaren konbinaziotik TTP  
irten zen. Musika eta margoa nahasten ditugu. Horma bat  
aukeratzen dugu eta ikuskizunak irauten duen erdia bat  
musika jartzen egoten da eta bestea margotzen; ostean  
aldaketa egiten dugu. Inprobisazioa erabiltzen dugu, ez  
dugu aurrez erabakitzen zer egin. Lauzpabost emanaldi  
egin ditugu, baina gehiago egiteko gogoz gaude.

### **Eta zer da DGraff?**

DGraff diseinuzko graffitiak dira. Sortu dudan estilo bat  
da. Zergatik egin nuen? Ba egunen batean euskal graf-  
fiti estilo propio bat egotea gustatuko litzaidakeelako,  
eta hau nire ekarpen txiki bat da. Gu ez gara New Yorkeko  
Bronx auzoan jaio eta ez dugu estilo berdina egiten.

Baina horrek ez du esan nahi  
ikurrinak—eta agertu behar  
direnik, e? (barre)

### **Amaitzeko, badaukazu proiektu- turen bat burutik bueltaka?**

Liburu bat kaleratu nahi nuke.  
Ehun bat infografia sortu ditut  
dagoeneko, baina ez daukat diru-  
rik eta laguntza bila nabil. Izan ere,  
norberaren poltsikotik ordaintzea  
garesti irteten da....



### **Haritz Irureta**

(Zarautz, 1976)

Arte Ederretan lizentziatua da Haritz Irureta.  
Batez ere infografiak egiten dituen arren, graffi-  
tigilea ere bada. Hala, Euskal Herriko I. Graffiti  
Lehiaketa irabazi zuen. Enkarguak ere jasotzen  
ditu muralak-eta egiteko, besteak beste, bere  
herriko udalarenak. Ogibidez, baina, irakaslea  
da eta Barandiaran Lizeoan dihardu gaur egun  
diseinu eskolak ematen.



## Ione Agirre

Ingeniaria

“Txinan ikusten ditugu emakumeak hemen ikustera ohituta ez gauden lanak egiten; eraikuntza lan asko egiten dute”

**ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL**

Argazkiak: **IONE AGIRRE**

*Azken bi urteetan Txinan ari da lanean Ione Agirre arrasatearra. Hala ere, ez da denbora guztian han egoten, tarteka, hilabete eta erdi igarotzera joaten da. Gaztea eta emakumea delako eta Emakumeen Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta egin diogu elkarrizketa*

### **Zer ikasi duzu?**

Ingeniaritza ikasketak egin nituen Donostian. Ondoren, kanpora joan nintzen zazpi hilabetez, Frantziako Tolosara hain zuzen ere, eta oso esperientzia aberasgarria izan zen. Orduetik eraman dudan bizitza eta hartu ditudan erabakietan eragina izan du zalantzarik gabe. Han-

dik, Danimarkara joan nintzen karrera amaierako proiektua egitera eta harrezkero lanean ari naiz.

### **Hori ere toki desberdinetan egin duzu...**

Bai. Lehenengo ASMObi enpresan aritu nintzen urtebetez eta orain Fagorren dihardut lanean eta haren



*“Ikasi dut beste bizitzeko modu bat ulertzen, nire burua horretara moldatzen, pazientzia izaten...”*

”

bitartez Txinara bidaiatzen dut, Taiyuan herrira, hain zuzen ere.

### **Urruti samar...**

Egia esan ez da bila joan nintzen zerbait. Lan elkarrizketa bat egin nuen eta esan zidaten Txinan proiektu bat aurrera eramateko aukera bazegoela eta, denboraldi batzuk bertan igarotzea eskatzen zuen. Interesgarria iruditu zitzaidan eta han nago orain.

### **Nongo jendearekin zabilta lanean?**

Gu lanean gabiltzan enpresa Txina iparraldean dago, 60.000 pertsona dabilta lanean eta 25 kilometro karratu ditu. Siderurgia Handia bezala deiturikoaren barruan sartzen da. Ez da bezero arrunt bat, oso garrantzitsua da guretzako. Prozesu dena egiten dute, arrabiotik hasita bukaerara arte. Mundu guztiko jendea

gabilta txinatarrez gain: euskaldunak, italiarrak, estatu-batuarrak, alemaniarak... Eta nahiz eta konpetentzia-koak izan elkarbizitza bat daukagu: hotel berean bizi gara, eta asteburutan-eta, batera irteten gara sarri, esaterako.

### **Zenbat denbora daramazu han?**

Bi urte gutxi gorabehera, eta hilabete eta erdiko estantziak egiten ditut. Orokorrean, orain arteko esperientziaren balorazio bat eginez gero, positiboa izan dela esan dezaket, bai arlo profesional eta baita pertsonalean ere. Baina ez da erraza izan, momentu gogorrek egon dira, dena bertan behera uzteko moduan.

### **Baina momentuz ez duzu egin.**

Ez, konturatu bainaiz pertsona bakoitzak barruan indar asko dugula eta horrelako uneei aurre egiteko energia





biltzen dugu. Gainera, horrelako kasuetan lankideak ia-ia familia bihurtzen dira, eta nik gainera pertsona klabe bat izan dut proiektuan nirekin lanean, lera. Ia hasieratik bizi izan dugu esperientzia batera eta momentu zailetan sostengua izan da niretzako, eta badakizu, gauzak konpainia onean egiten direnean errazago eramaten dira.

### **Kulturalki gainera desberdina da tokia...**

Halaxe da. Nire ingurukoek badakite gorabehera asko izan ditudala eta kultura berri horretara eta lan egiteko modura moldatzea ez da erraza.

### **Nola definituko zenituzke txinatarrak?**

Orokorrean oso jende jatorra eta gainera gehienetan laguntza emateko prest daudenak dira. Negozio mailan...zailak.

### **Zer da egonalditik okerren eraman duzuna?**

Niretzako janaria eta garbitasunarekiko duten kontzeptu desberdina.

### **Eta gehien gustatu zaizuna?**

Esperientzia bera. Kultura desberdin batetan lan egiteak asko irakatsi dit: ikasi dut beste bizitzeko modu bat ulerzen, nire burua horretara moldatzen, pazientzia izaten...

### **Nola ikusten duzu emakumearen egoera Txinan?**

Arreta deitu didan zerbait da. Alde batetik familia kontuan mendeko emakumea da, gizonaren beldur dela dirudi, bigarren mailan egongo balitz bezala. Bestalde, lan munduari begiratu gero, ikusten ditugu emakumeak hemen ikustera ohituta ez gauden lanak egiten: soldatzen, kaleetatik area ateratzen, hormigoi-makinetan... eraikuntza lan asko egiten dute. Kargu altuetan ere badaude emakumeak eta ondo baloratuta gainera.

### **Emakumea eta Txinan.**

Lanean nabilen enpresan lehenengo emakume kanpotarra izan naiz (kontutan hartu behar da 15-20 urte daramatela atzerritarrekin lanean). Baina ni sartu ostetik, geroz eta presentzia handiagoa daukagu. Zer nola-ko jarrera izan duten nirekiko? Nik uste txinatarran

aldetik harrera ona izan dela eta baita euskaldunen aldetik ere, baina beti dago salbuespenen bat.

### **Nola bizi duzu zuk emakume izatea?**

Industria mailan oraindik asko dago egiteko. Baina egia da ateaak poliki-poliki zabaltzen ari direla eta aurrera egiteko aukerak ikusten ditut. Hala ere, mesfidantza badago, gizonak baino gehiago erakutsi behar dugu, esaterako. Beti da zailagoa emakumearentzat eta urte askotan izango da horrela; bide luzea dago egiteko oraindik.

Baina aldi berean, nik ez dut igarri diskriminazio handirik. Hori bai, emakumea eta gainera gazte izateak baldintzatu egiten nau, esperientzia askorik ez dudala jakin badakite eta. Txinan tratua egiten ditudan pertsonak gizonetakoak dira eta gainera ni baino zaharra-goak, esaterako.

### **Gaiz aldatuta, herrialde komunista da Txina. Nola ikusten duzu hori?**

Oso nabarmenak diren bi klase sozial daude: gobernuko jendeak osatutakoa lehena, eta herritarrena bestea. Pobreak dira azken hauek, baina desberdin bizi dute txirotasun hori. Esaterako, nire laneko txinatar batekin askotan hitz egin dut horri buruz. Berari esaten diot Euskal Herrian jende gehiena erdi mailakoa dela. Eta berak esaten du horrela dela baita ere Txinan. Maila estandarra desberdin ikusten dute.

### **Pekin 2008. Olinpiadak Txinan.**

Herrialde guztia hankaz gora dago, eta Pekinen bereziki izugarri nabaritzen da hori. Hala ere, esan behar dut, inoiz ikusi ditudan aireporturik onenak han daudela esaterako, berriak eta azken momentuko teknologiez hornituta...

Oporrak Txinan igarotzeko aprobeztatu dut eta herrialde guztian asko nabaritzen da “eraikuntzan” dagoen herria dela. Adibidez, egun batetan jatetxe batetara afaltzera joan eta hurrengo egunean eraikina botata dago berri bat egiteko. Baina kontutan hartu behar da nola egiten duten lan: hiru errelebotan ordu pila bat sartuz, barrakoietan lo egiten... Lan baldintzak penagarriak dira.

### **Txinako gauei buruz hitz egin dezagun...**

Oso desberdinak dira. Atentzioa deitzen du beraien bizi modurako zein garestia den eta diskoteketan dauden aberatsak izaten dira normalean. Afaltzen joatea merkea da, baina hortik irteera beraiarentzat oso garestia da. Musika aldetik, txineraz abestutako musika dantzagarria nonahi, ikuskizunak...

### **Eta karaokea.**

Bai. Oso ospetsuak dira karaokeak. Negozio bazkarietan eta, karaokera joaten dira. Gainera txinatarrek orokorrean ongi abesten dutela esango nuke. Eta ausartak dira edozer egiteko: antzetzeko...

### **Amaitzeko, esaguzu han egonda zer duzun faltan.**

Dena. Nahiz eta tokira ohitu eta gustura egon, beti sumatzen dituzu faltan familia eta lagunak, janaria... Herrimin puntu bat egoten da beti.



#### **Ione Agirre**

(Arrasate, 1981)

Arrasaten ikasi zuen harik eta Donostian Ingeniaritza egiten hasi zenera arte. Azken urtean, Frantziara joan zen zazpi hilabetetarako ikasketak amaitzera, eta ondoren, karrera amaierako proiektua Danimarkan egin zuen. Lan munduan sartu zenetik hortik hara dabil, eta egun, Txinan dihardu beharrean.



## Iñaki Isasi

Euskalteleko txirrindularia

“Batzuetan autoekin  
sustoak hartu ditut  
entrenatzerakoan, baina  
orain gutxiago; jendea  
mentalizatzen  
ari da”

NAHIKARI NUÑEZ, GARAZI SANCHEZ, NEREA GARCIA, M. EUKENE EGIA, DAVID HIDALGO, M<sup>a</sup> ANGELES ROJO,  
IKER ROJO  
AMURRIOKO ZARAIBE INSTITUTUA

*Sei urte daramatza Isasik txirrindularitza profesional bezala. Lehiaketa askotan hartu du parte, besteak beste Euskal Itzulian, Milan - San Remo itzulian, Kataluniakoan, edota Tourrean. Talde desberdinetan ere aritu izan da, baina orain Euskaltelen dago, eta oso gustora, aitortu digunez*



### **Zu ikasle ona zinen? Non ikasi zenuen?**

Beno, on-ona ez, baina dena gainditzen nuen, eta doi-doi egiten nuen gainditzeko, pixka bat gehiago baina... zenbat eta maila handiago batean egon, orduan eta larriago ibiltzen nintzen baina gainditu nuen.

Etxaurre ikastolan ikasi nuen eta gero BUP eta COU egin nituen Laudioko ikastolan; eta gero hemen, Zaraoben urte betez egon nintzen, alboko Zuraren tailerrean, modulu bat egiten.

### **Betidanik ibili al zara txirrindularitza?**

Txikia nintzenean 14 urtera arte edo, Etxaurren futbito taldeak zeuden eta han jolasten nuen; gero 14 urterekin hasi nintzen bizikletarekin lehiatzen, eta orain arte.

### **Zure aisialdian zer egiten duzu?**

Txirrindularitzak ez du uzten gauza askorik egiten. Adibidez, mendira joatea edo holako gauzak ezin ditut egin atsedean asko behar dudalako, asko entrenatu eta gero oso inportantea da atsedena. Gauza piloa egin ditzakezu, baina lasai: zinemara joan, interneten ibili, musika entzun... Pertsona normal baten moduan baina gauza lasaiak eta atsedena uzten dizkizutenak.

### **Zure bizitzan topatu al duzu betiko bikoterik?**

Hori espero dut, topatu dudan hori izatea.

### **Zer da zuretzat bizitza, oparia ala zigorra?**

Oparia.

### **Badiozu beldurra 30 urtetara heltzeari?**

Ez, baina batzuetan pena ematen dit. Txirrindularitza 34 urterekin utzi behar duzu. Badaude txirrindulari nagusiagoak baina normalean 32-34 urterekin amaitzen da bizitza profesionala. Pena ematen dit hain hurbil egoteak adin hori.

### **Zergatik hasi zinen txirrindularitza?**

Aita txirrindularia izan zen, baita profesionala ere. Etxean beti txirrindularitza egin izan da eta ikusi eta ikusi eta azkenean nire anaiarekin hasi nintzen ibiltzen, gustukoa dut.

### **Noizbait beldurra izan duzu entrenatzen?**

Beldurra ez, baina batzuetan kotxeekin sustoak hartzen



dituzu. Orain gutxiago. Auto gehiago daude baina uste dut jendea pixka bat mentalizatuta dagoela, errespetatu egin behar dela. Orain dela bi urte jarri zen legea indarrean eta txirrindulariak babesten ditu. Bestalde, hemengo errepideak nahiko lasaiak dira, Amurrio, Urduña eta Laudio artean kotxe gehiago dago baina ni Murgiaraino joaten naiz Mendarozketatik eta bide horietatik leku lasaiak daude.

### **Zein izan da zure postu hobereana profesioletan? Non?**

Uste dut Tourrean hirugarren geratzea izan dela eta beste lasterketa batzuetan esaterako, laugarren edo hirugarren geratu izan naiz.



***“Profesionaletan ahal duzun eta legalena izan behar duzu, kontutan hartuta zeure osasuna jokoan dagoela***



### **Zein izan da zure erorketa gogorrena?**

Ba egia esan ez dut inoiz izan erorketa gogorrik, inoiz ez dut hezurrik ez beste ezer apur-tu, beti txikiak izan dira nahiz eta esprintetan egon, zorte handia izan dut.

### **Noizbait pentsatu duzu txirrindularitza uztea?**

Lehengo urteetan holako pentsamenduak izaten dituzu. Profesionaletako aurreneko urteetan zaila egiten da, maila handia dago eta kostatzen da. Gero orain modan dagoen Puerto Operazioa eta horrelakoak agertzen direnean gogoa kentzen dizute jarraitzeko baina guzti hori alde batean uzten ikasten duzu.

### **Zer iritzi daukazu Puerto operazioari buruz? Eta nola amaitu den gaia?**

Nahaste bat izan da. Nik uste azkenean gobernuko pertsona batzuek puntuak irabazi nahi izan dituztela dopinaren aurka joaten. Baina ez dira dopinaren aurka joan, bai-zik eta txirrindularitzaren aurka. Ikusten dutelako hemen txirrindularien artean ez garela ados jartzen eta gure aurka joatea erreza delako. Ikusi zen kirolari gehiago zegoela baina horiek aparte utzi zituzten jende garrantzitsu-a zela ikusi zutelako eta orain ez dakigu zer gertatuko

den. Badirudi ezin dutela inoren aurka jo frogarik ez dute-lako. Nik badakit Tourrean lista bat atera zutela eta nire gelakidea izandako txirrindularia bertan agertu zela. Bere aurpegia ikusi nuen. Ez zuen ulertzen nolatan zegoen bere izena han. Ikusi da bertan agertzen ziren jende askok ez zuela mediku horrekin harremanik, medikuak ez zituela ezagutzen eta ezta alderantziz ere. Katxondeo itzela.

### **Zerbait hartzen duzu errendimendua hobetzeko?**

Profesionaletan ahal duzun eta legalena izan behar duzu, kontutan hartuta zeure osasuna jokoan dagoela. Argi izan behar dugu txirrindularitza profesionala ez dela osasuna, kirola osasuna da, baina profesionala azkenean ez da osasuna. Ez hartzen duzunagatik, gorputzari asko exijitzen diozulako baizik; egunero entrenatu eta jipoi handiak eman. Agian entrenamenduak egun batean gogorrak dira eta beste batean atsedean modu-

koak edo lasaiagoak. Hori ondo eramaten da. Baina adibidez, Tour bat eta Espainiako Itzuli bat 21 egun jarraian dira, 200 kilometroekin, eta hori ez da osasuntsua azkenean gorputzari esfortzu handiegia exijitzen diozulako. Hartu behar dira gauzak, legalak diren gauzak, bitaminak-eta asko daude. Janariarekin soilik ezin duzu errendimendu hori lortu, eta asko jan beharko zenuke errekuperatzeko; eta potolo egonda ezin izango ginateteke ondo ibili.

Hala ere badaude batzuk asma ez badute ere tranpa egiten dutenak asma dutela esaten; baina batzuetan pertsona normalek hartzen dituzten botikak dopina dira, katarrorako xarabeak ere positibo ematen du eta holakoak ere gertatu dira. Gaur kontrol handia dago eta bakoitzak jakingo du zer eta noiz hartu. Oroitzen dut Tourrean duela urte batzuk liztor batek aurpegian haginika egin ziola txirrindulari bati eta begia handituta zuen arren ez zioten ezer eman dopinean positibo ez ematearren.

### **Poztu zinen 2006ko Tourreko zure hirugarren postuarekin?**

Bai asko. Pena eman zidan garaipenetik hain hurbil ego-tea, pozten zara zugatik eta familiagatik baina gero bere-

hala ahazten da, azkenean txirrindularitzan garaipenak baino ez du balio. Askotan ikusten dut hori kontratua egiterakoan, garaipenak balio du baina hirugarren postuak... Nahiz eta hain hurbil, metro batera edo, ez du balio edo gutxirako balio du.

### **2006ko Tourra amaitu zen orain dela zenbait hilabete eta oraindik ez dakigu nor den irabazle ofiziala. Zer deritoxu horri?**

Lehen esan dudana, Puerto operazioagatik da hori eta pena bat da. Orain esaten dute agian hutsik utziko dutela garaipena, ez zait ondo iruditzen lehenak ez badu ondo jokatu. Arraroa da. Orain ikusi da laborategian gauzak gaizki egin dituztela eta...

### **Harreman ona daukazu Euskalteleko txirrindulariekin?**

Bai. Hemen gustura egoten da eta gainera guztiok lagun onak gara. Batzuekin gutxiago hitz egiten duzu. Azkenean taldea 30 txirrindularik, masajistek eta mekanikariek osatzen dute eta hori jende asko da eta argi dago guztiokin ez zarela ondo konponduko; normalean ez dago beti harreman onik.

### **Erantzun laburrak**

Kolore bat: Urdina

Neska izen bat : Leire

Mendia ala hondartza? Mendia

Kotxe deportiboa ala mendiko kotxea? Mendiko kotxea

Kotxea edo bizikleta? Bizikleta

Politikari bat: Ez zait gustatzen politika

Ezkerra edo eskuina? Ezkerra

Bidaia bat: Tibetera

Lurralde bat: Euskal Herria

Herri bat: Nire herria, Arespalditza

Zenbaki bat: 2

Okela edo arraina: Arraina

Amets bat: Lasterketa bat irabaztea

Amets gaizto bat: Ez zarela ailegatzten irteerara, joaten direla eta holakoak

Bizikleta marka bat: Orbea

### **Honako hitzek, zer esaten dizute?**

Arespalditza: Nire herria, herri polita, lasaia

Euskaltel: Euskal Herriko txirrindulari talde bat

Ibarretxe: Politikari bat

Igor Gonzalez de Galdeano: Nire nagusia

Joseba: Lagun ona

Balin: Balin? artista bat, hemen inguruan daukadan artista bat



### **Iñaki Isasi Flores**

(1977/04/20, Arespalditza, Araba)

2001ean debutatu zuen Iñakik txirrindularitzan.

Talde desberdinetan ibili da: Euskalte-Euskadi, Olarra-Ercoreca. Frantziako Tourra eta Espainiko Itzulian ere aritu izan da, besteak beste. 2006ko

Tourreko 5.etapan hirugarren postua lortu zuen.

# Karmele Jaio

Idazlea



“Zure burua hobeto ezagutzeko aukera ahalbidetzen du idazteak”

AMAIA ELIZONDO

*Euskal idazleen artean izena hartzen doan gaztea dugu Karmele Jaio. Hamabost zauri eta Amaren Eskuak liburuekin arrakasta lortu zuen gasteiztar honek eta orain bere hirugarren liburuan dihardu lanean. Berandu hasi zen idazten bere hitzetan, baina beti izan du irakurtzeko zaletasuna, batez ere idazle klasikoen lanek erakarrita. Horri buruz eta gehiagoz mintzatu da elkarrizketa honetan*

## **Zertan zabilta momentu honetan?**

Urrian argitaratuko dudan liburu berri bat bukatzen aritu naiz azken hilabeteetan. *Zu bezain ahul* izango da narrazio liburu berriaren izenburua eta Elkar argitaletxearekin kaleratuko dut.

## **Nolakoa da *Zu bezain ahul*?**

Hamabost narrazioko liburu da, *Hamabost zauri* nire lehen liburu bezala. Estiloaren aldetik ere antzekotasunak dituzte bi liburuek. Pertsonen arteko harremanetan zentratzen naiz liburu berri honetan ere. Halaber,

**“Idazteak zer pentsatzen duzun ikusteko aukera ematen du**



pertsonen arteko komunikazio ezintasunetan sakondu nahi izan dut; pertsonak dituzten ahultasunak azaltzen saiatu naiz.

### **Berriro ere narrazioak idazten hasi zara.**

Nobelagile baino, nire burua narrazioak idazten ikusi dut hasieratik. Idazten hasi nintzenetik narrazio gehiago idatzi ditut eta gustura sentitzen naiz. Esperientzia gehiago daukat narrazioekin, eta gainera, ipuinak idazteko gogoia ere banuen jada.

### **Zergatik aukeratu duzu pertsonen ahulezia?**

Liburua idazten hasi nintzenean ez nuen gai zehatzik buruan. Ipuinak idazten hasi nintzen eta pertsonen alde ahulak ateratzen ari nintzela ohartu nintzen. Denok ditugun ahultasunak aztertu eta ipuinak osatzen joan nintzen. Askotan idazten ari zarenean zure kezkek zeintzuk diren ohartzen zara.

### **Amaren eskuak liburua gazteleraz kaleratzeko asmoarekin jarraitzen al duzu?**

Azkenaldian ipuinak idaztearekin batera, *Amaren eskuak* liburuaren itzulpena egiten aritu naiz. Oraindik ez dut argitaletxeekin hitz egin eta ez dakit noiz kalera-tuko dudan. Dena dela, itzulpena baino gehiago berri-dazketa egin dut. Izan ere, hizkuntza batean esanahi batzuk dituzten hitzek ez dute beste hizkuntzan berdin funtzionatzen. Gainera, itzulpena bakarrik eginez gero istorioa oso hotza geratzen zen.


### **Hamabost zauri izan zen kaleratu zenuen lehen liburua. Nola oroitzen duzu momentu hori?**

Momentu berezia izan zen. Zure lana argitaratuta ikus-tea oso polita da. Hainbat urtetan idazten egon ondo-

ren zuk idatzitako istorioak kalean dabiltzala ikusteak ilusio berezia eragiten du. Gainera, oso ondo atera zen dena eta jendearen erantzuna ere ezin hobea izan zen. Bestalde, bakoitzak idatzitako ipuinetan barruko zati bat uzten duzu agerian. Kaleratu ostean zure ipuinak besteen zati ere badirela konturatzen zara.

### **Betidanik izan al duzu idazteko zaletasuna?**

Egia esan, nahiko berandu hasi nintzen idazten, 19–20 urterekin. Irakurtzeko zaletasuna, aldiz, betidanik izan dut. Idaztea beti atsegin izan dut, baina ipui-nak erredaktatzen beranduago hasi nintzen.



### **Idazleak irakurle finenak omen zarete. Zeintzuk dira erreferente dituzun idazleak?**

Gustuko ditudan idazle gehienak klasikoak dira. Betiko maisu klasikoen artean, Txekhov eta Julio Kortazar oso onak dira, baina ipuin egile asko ditut gustuko. Asko atsegin dudan beste idazle bat Bohumil Rhabal idazle txekiarra da.

### **Zer ematen dizu idazteak?**

Idazteak zer pentsatzen duzun ikusteko aukera ematen du. Zer esan nahi dudan jakiteko idazten dudala ere esaten dut askotan. Idatzi ondoren mundua nola ikusten duzun ohartzen zara. Alde batetik zure burua hobeto ezagutzeko modua ahalbidetzen du. Munduari begiratzeko beste era bat ere ematen dizu idazteak. Bestalde, munduan zer gertatzen den jakitera behar-tzen zaitu.





### **Karmele Jaio**

(Gasteiz, 1970)

Karmele idazlea da eta hirugarren liburua kaleratzeko asmoa du udazkenean *Zu bezain ahul* izenburupean. Bere lehen narrazio liburua 2004 urtean kaleratu zuen *Hamabost zauri* izenburuarekin. Ondoren, Igartza Saria irabazi ostean, *Amaren eskuak* nobela idatzi zuen 2006an. Bere esanetan, idazteak bakoitzaren kezak zein diren ohartzeko aukera ematen du.

### **Hainbat sari jaso dituzu azkenaldian *Amaren eskuak* lanarengatik. Zer esanahi dute sari horiek zuretzat?**

Sariak ezberdinak izaten dira orokorrean. Nik hartu ditudanak irakurleengandik jasotakoak izan dira. Sari horiek niretzat garrantzi handia dute. Idaztea oso lan bakartia da, jendearen erantzuna jasotzea zaila izaten baita. Horregatik sariek hutsune hori betetzen laguntzen dute.

### **Euskal Herrian literaturak nolako egoera bizi du?**

Askotan egoera ilun jartzen badugu ere, azken urteetan irakurzaletasuna indartzen doa. Irakurle klubak gero eta gehiago dira Euskal Herriko herrietan, eta harrituta geratu naiz taldeak asko baitira. Gainera, hilerio mintzaldiak egiten dituzte liburu baten egilearekin eta ekintza ugari antolatzen dituzte. Dena dela, irakurzaletasuna sustatzen jarraitu behar da, batez ere, gazteen artean.

### **Geroz eta emakume gehiagok idazten dute Euskal Herrian.**

Bai, geroz eta emakume gehiagok argitaratzen dituzte liburuak eta horrela izan behar du. Pixkanaka gizon eta emakumeen arteko oreka lortzen joan behar gara.

### **Idazten jarraitzeko gogo bizia duzu, ezta?**

Bai. Beti darabilt zerbait buruan idazteko. Oraindik istorio asko idazteko ditudala iruditzen zait, baita gogoa ere.

# Unai Basurko

Itsasgizona



“159 egun itsasoan bakarrik egon arren, denbora gutxi nuen dibertimenturako”

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL ETXABE

Argazkiak: ON EDITION

*Portugaleteko gazte hau hedabide desberdinetan ikusi ahal izan dugu. Izan ere, Velux 5 Ocean itsasontzi txapelketan 3. postua lortu du eta horrek bihurtu du azken hilabeteetako protagonista. Euskaldun gazte honek askoren ametsa bete du munduari bira emanez. Eta bakardadean gainera. 159 egun egin zituen Unai itsasoan eta nahiz eta gogorra izan dela aitortu, berriz ere ibilbide berdina egingo lukeela adierazi digu*

## **Nondik datorkizu itsasontziekiko zaletasun hau?**

Nire gurasoekin hasi nintzen nabigatzen ume nintzela, Getarian, itsasontzi txiki batetan. Hazten joan ahala, txalupa ere handitzen joan zen. Geroz eta ordu eta egun gehiagoz praktikatzen nuen nabigazioa, eta hortik datorkit zaletasuna.

## **Itsasontziren bat al zenuten familian?**

Bai, aitak 8 metroko itsasontzia erosi zuen eta aukera genuen guztietan erabiltzen saiatzen ginen: asteburuetan, oporraldi gehienetan... Inbertsio bikaina da ahalik eta probetxu gehien ateratzen badiozu.

### **Zer sentitzen da bakarrik nabigatzean?**

Taldean nabigatzearekin alderatuta, askozaz ere sentipen handiagoa duzu, bai itsasontziarekin eta baita itsasoarekin duzun erlazioan ere. Aldi berean, askoz gogorragoa da, lan gehiago eskatzen dizun ekintza da.

### **Taldean edo bakarka ibiltzea nahiago duzu?**

Nik uste nabigatzea atsegin dugunok modu guztiak ditugula gustuko. Izan ere, tripulazio on batekin aritzea oso dibertigarria da eta baita txapelketetan parte hartzea ere. Edota oporretan joatea belaontzi batetan. Azken finean barietate asko eskaintzen dizun kirola da eta denek dute abantaila.

### **Baina akaso 159 egunetarako...**

Bai. Bakarrik hobeto. Bizikidetzarengatik, batez ere. Baina garrantzitsuena gozatzea da beti.

### **159 egun bakarrik. Zein izan zen momentu gogorrena?**

Hasiera oso zaila egin zitzaidan. Denbora mordoa pasatu nuen dena prest izateko. Txapelketa hasi eta berehala arazoak izan nituen eta berriz ere itzuli behar izan nuen abiapuntura. Psikologikoki momentu txarre-na izan zen.

### **Pentsatu al zenuen inoiz txapelketa uztea?**

Ez, inoiz ez zitzaidan horrelakorik burutik pasa ere egin. Zailtasunak zailtasun, beti pentsatzen nuen itsasontziak irauten zuen bitartean nik ere iraungo nuela.

### **159 egunetan zehar bakarrik egonda, entretenimenduren bat izango zenuen.**

Egia esan ez dago denbora askorik dibertitzeko, denbora gehiena lanpetuta egoten baitzara: belei jaramon egiten, janaria prestatzen, apurtutakoak konpontzen, atsedean hartzen... Baina denbora libre pixka bat nuen, irakurri edo abestiren bat edo beste entzuteko aprobeztatzen nuen.

### **Zein musika mota?**

Denetarik, momentuaren arabera lasaiagoa edo mugituagoa nahiago nuen.





### **Zertan pentsatzen da horrenbeste denbora bakarrik igarotzean?**

Gauza ugari etortzen zaizkizu burura. Meditatzeko aprobetxatu nuen, bizitzan egindakoaz, lagunez, familiaz, txapelketaz...

### **Eta etxera iristerakoan zer sentitu zenuen?**

Gogorra egin zitzaidan. Bi urtetan zehar aktibitate jarrai bat izan nuen eta amaitzean gogorra egin zitzaidan galditzea. Baina banabil noizean behin itsasora ihesaldiren bat edo beste egiten.

### **Zertan zabilta orain?**

Ba noizean behin nabigatu egiten dut, baina batez ere Velux txapelketan bizitakoa kontatzen dihardut.

### **Hartuko al zenuke berriz ere proba horretan parte?**

Bai, zalantzarik gabe.

### **Momentu honetan esango balizute hartu itsasontzia eta joan zaitez. Zein toki aukeratuko zenuke?**

Galiziara joango nintzateke. Hemendik gertu egon arren, ikusgarria iruditzen zait.

### **Eta erronka bezala?**

Nahiz eta aurreragorako planak egiten hasi naizen, printzipioz atseden hartzea nahi dut bakarrik.

### **Motzean: Zer da zuretzat...**

Itsasoa? Erantzukizun handia eskatzen duen askatasuna

Portugalete? Nire herria

Euskal Herria? Itzultzeko toki bat

Velux? Egia bihurtu den ametsa

Haizea? Lagun bat

Elkano? Aitzindari bat mundu honetan

### **Bukatzeko. Zer esango zenioke bela munduan hasi nahi duen norbaiti?**

Hasteko ez duela zertan gazte izan behar.

Berdin dio zein adinak nola sexuak. Eta

onena, probatzea dela. Lan asko eskatzen duen kirola izan arren, ematen



dituen pozak ere asko dira era berean. Gainera aurrekontu guztientzako txalupa bat dagoela esango nioke, eta itsaso-eskola batera joan eta probatzeko aukera dagoela. Beraz, animatzeko.

### **Unai Basurko**

(Portugalete, 1973)

Itsasoa maite du bizkaitar gazte honek eta galdetuz gero, bere pasioa nabigatzea dela erantzungo dizu. Getarian hasi zen txikia zela barkuan ibiltzen gurasoekin, eta ordutik makina bat itsasontzitan ibili da hamai-ka abentura biziz. Azkena, Velux 5 Oceans txapelketa. Bertako hirugarren postua lortu du aurten. 159 egun egin zituen bakarka nabigatuz munduari itzulia ematen. Berriz ere parte hartuko lukeela ziurtatu du. Erreferente asko ditu mundu honetan, baina beti ere itsasoa errespetatzen dutenak.

## Silvia Intxaurreondo

Cuatro telebista kateko aurkezlea



“Kameraren atzean edo aurrean, kazetari bera naiz... Irratian edo telebistan, lanean edo etxean... Niretzat, kazetaritza ez da lanbide bat, baizik eta bizimodu bat”

**YERAY VARELA, LEIRE MARTIN, PATRICIA GAMEZ, ENDIKA GONZALEZ, ALEJANDRA RABUÑAL, MAITANE ROURE, IRUNE TRANCHE  
SANTURTZIKO SAN-JOSE CARMELITAS IKASTETXEA (DBHko IKASLEAK)**

*Ikastetxera etortzen gara egunero, astero eta urtero. Etorkizun urrunean behar bezalako gizon-emakumeak izateko beharrezkoa omen da. Guk, egia esan, ez dugu ondo ulertzen. Eskolara ez joateko aukera izango bagenu ez dugu uste inor etorriko litzatekeenik. Baina, noizean behin, ikasle baten bizitzan barrena hausnarrarazten diguten egoerak agertzen dira. Horietako bat guri gertatu zitzaigun joan den hiruhilabetekoan. “Cuatro” izeneko telebista-kate berrian irteten da egunero neska ilehoridun bat gaueko albistegian, Iñaki Gabilondo entzutetsuaren ondoan,*

*eguneroko gertakizunen berri ematen. Silvia Intxaurre du izena eta gure ikastetxeko ikasle ohia da. Bai, gure ikasgelan bertan egon zen, gure eserlekuetan eseri zen, guri eskola ematen diguten irakasleek berari ere eman zioten. Orain telebistan agertzen da egunero, Gabilondorekin bat, eta gaueko albisteak aurkezten ditu. Beraz, gu bezalako ikasle batek hainbeste lortu baldin badu, geuk ere geure aukerak aprobetxatu nahi ditugu. Silviari buruz gehiago jakin ahal izateko, gure irakasleek deitu zioten eta elkarrizketa bat egin genion. Bota genizkion galdera guztiei erantzun zien hitz jarioz eta zintzotasun osoz. Hona hemen elkarrizketa osoa*

### **Nolako zen Karmelitak ikastetxea ikasten zenuen?**

Orain baino txikiagoa. Ez zegoen patioko eraikinik, ez zegoen hainbeste gelarik.... eta ezta paretako graffitik ere, noski... Ematen du paleolitoan ikasi nuela, ezta?

### **Nolakoak ziren zure irakasleak?**

Klasetik kanpo, denak jatorrak. Gela barruan, batzuk gogorak. Baina gero, unibertsitatean konturatu nintzen etorkizunerako prestaketa zela.

### **Erraza al zen Karmelitak ikastetxean euskara ikastea?**

Ezta pentsatu ere! A eredia besterik ez zegoen. Euskara euskaltegian ikasi nuen eta baita udako barnetegietan ere.

### **Oroitzapen ona eraman al duzu gure ikastetxetik?**

Hobezina.

### **Zein da zure helmuga?**

Oheratzean, nire buruarekin ondo sentitzea.

### **Zeintzuk dira zure zaletasunak?**

Bidaiak egitea, filmeak ikusteak, irakurtzea, musika entzutea... Batez ere, maitatzen ditudaneekin egotea.

### **Zein da zure futbol taldea?**

Futbol taldea? Beti nire nebarena.

### **Gustatuko litzaizuke familia bat sortzea?**

Badaukat bat. Momentuz, nahikoa. Baina etorkizunean, zergatik ez?

### **Zure ikaskideekin erlazionatzen zara? Horrela bada, zer esaten dizute telebistan ikustean?**

Ez, zoritxarrez ez dugu erlazio handirik.

### **Gogoratzen al duzu zerbait gure herriaz? Adibidez: kaleak, jaiak...**

Dena gogoratzen dut. Batez ere, itsasoa. Eta gainera askotan joaten naiz familia eta lagunak ikustera. Nahiz eta herritik joan, nirekin daramat beti.

### **Zelan moldatzen zara kamera baten atzean egunero egotean?**

Kameraren atzean edo aurrean, kazetari bera naiz... Irratian edo telebistan, lanean edo etxean... Niretzat, kazetaritza ez da lanbide bat, baizik eta bizi modu bat.

### **Aldatuko al zenuke zure bizitza beste pertsona baten bizitzaren orde?**

Batzuetan. Irakasleek ez dute lan askorik, ezta? Txantxa, txantxa bat zen.



Siivia Intxaurreondo

### **Gustatuko litzazuke Santurtzin berriro bizi-zea?**

Bai, edo Frantzia, edo Afrikan, edo Japonen!!! Zergatik ez?

### **Urduri jartzen zara kameraren aurrean?**

Etxean izango banintz bezala nago. Teleberri pare bat aurkeztu eta gero, kameraren aurrean nagoela ahazten dut. Albistegia hastean, kamera desagertzen da nire bistatik.

### **Erraza da Cuatro-ko albistegia aurkeztea?**

Albistegia prestatzea zailagoa da. Bederatzi ordu behar dugu hogeita hamar minutuko albistegia prestatzeko.

**“Niretzat, kazetaritza ez da lanbide bat, baizik eta bizimodu bat**



### **Kostatu al zaizu lan hau eskuratzea?**

Ez. Osagaiak: lan gogorra eta zorte pixka bat.

### **Azaldu egun normal bat lanean.**

Lana altxatzean hasten da. Lanera joan baino lehen, internetez irakurtzen ditut egunkariak. Telebistara hel-tzen naiz hamaiketan edo hamaika eta erdietan. Bilera batean, albistegiko lehen hezurdura prestatzen dugu. Apika, bi ordutako bilera. Gero beste irrati edo telebis-tetako albistegiak ikusten ditugu eta... jatera!!! Jan ondoren, beste bilera batean azken hezurdura prestatzen dugu. Makilatzen gara (ordu bat neskak, ordu erdi mutilak) eta idazten dugu esango duguna. Bederatzi-etan hasten da albistegia. Berrogei minutu eta gero, etxera!!

### **Ondo konpontzen zara zure lankideekin?**

Bai, jatorrak eta oso langile onak dira. Talde tinko bat gara.

### **Ondo moldatzen zara Iñaki Gabilondorekin?**

Bai, lagunak gara. Badaramatzagu bost urte kamera-ren atzean lan egiten: irratian maisu bat da. Eta niretzat, zortetik handiena.

### **Bada, hau da dena. Mila esker gure galderak erantzuteagatik.**

Ez horregatik. Gonbidatuta zaudete telebista ikustera.



### **Silvia Intxaurre**

(Santurtziarra)

Cuatro telebista kateko aurpegi ezaguna da Silviarena. Bizkaitarra da, Santurtziarra hain zuzen ere. Karmeliten ikastetxean ikasi zuen eta orain Iñaki Gabilondorekin batera albistegia aurkezten du gauero. Hortaz eta bere zaletasunei buruz mintzatu da elkarrizketan.

## Uxue Alberdi

Bertsolaria



“Gozamenerako hizkuntza euskara dut, tristurarako edo amorrurako hizkuntza ere euskara dudan bezala”

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL ETXABE  
Argazkiak: EKAIN VELEZ DE MENDIZABAL

*Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatuko da. Egun horretarako bideo bat egin dute Eusko Ikaskuntzan. Uxue Alberdi da bertan kantatu duen bertsolari bat, eta berarekin mintzatu gara euskararen inguruan*



### **Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta Eusko Ikaskuntzaren bideoan hartu duzu parte. Zer moduzko ideia deritzozu?**

Uste dut ezer ez dagoela soberan. Horrelako ekimen guztiak ondo daude, baina nik uste, garrantzitsuena ez direla aldarriak edo zerbaiten aldeko edo kontrako egunak. Eguneroko jardunak bilakatzen du hizkuntza bat erakargarri eta beharrezko. Nik gozatu egiten dut, eta gozamenerako hizkuntza euskara dut, tristurarako edo amorrurako hizkuntza ere euskara dudan bezala. Hizkuntzak leihoak edo betaurrekoak dira, eta hizkuntza bakoitzari esker mundu asko deskubritu daitezke, baita betiko munduari begiratzeko modu berriak aurkitu ere. Nik ez dut euskara konplexutik edo militantziaz bizi, nire bizitzeko modua da, eta asko ematen dit.



### **Zer izan da Haizearen Orrazian abestu eta grabatzea?**

Politikoa izan da, lekua ederra da, eta gustura egin nuen.

### **Euskara bitartez mundura. Bada esaten duenik gure hizkuntza oztopo izan daitekeela munduan zehar mugitzeko (eta ez horren urruti ere, etxean bertan...)**

Hizkuntza bat ez da sekula oztopo. Norbere burua ulertzeko balio digun momentutik bada zerbait! Askok da. Gainera, Txinara bazoaz berdin da alemaniarra zaren ala euskalduna, beste modu batzuk topatu beharko dituzue komunikatzeko. Hizkuntzak ez dira tresna soilak, munduari begiratzeko moduak dira, eta mundu-ikuskerak ezin dira traba izan. Denok hizkuntza bakarra bagenu, denok bagenitu esaldi forma berberak gauzak adierazteko... orduan ezingo genuke desberdin pentsatu, eta mundua erabat tristea litzateke.

*“Nik bertsolaritza barruan daramat. Nire parte da, eta nire parte den heinean nirekin doa noan tokira noala”*

Gainera, horrelakoak esaten dituen jendeak arazo bat du, eta ez guk. Nik ez dut konplexurik euskalduna izateagatik! Gure hizkuntzak beste hizkuntzek adina funtzio betetzen ditu, ez gehiago eta ez gutxiago, eta hain txikia, zaharra eta bitxia izateak balio handiagoa ematen dio oraindik. Niri ikaragarri gustatzen zait gure hizkuntza.

### **Euskara txikia da, euskara zaharra da... Nola ikusten duzu bere etorkizuna?**

Txikia eta zaharra izatearena berez ez da arazo. Nik ez dut gure hizkuntzak 40 milioi hitzun izatea behar euskara baliagarria eta konfiantzaz hartzeko moduko hizkuntza dela pentsatzeko. Jende ezjakin asko dago eta botereetatik ere

hizkuntzak positibatu edo estigmatizatu egiten dira. Pertsona askok ez dute ikusten hizkuntzen balioa, aberastasuna. Ez dute ikusten hizkuntzak kultura baten pentsatzeko eta sentitzeko modua adierazten duela; hizkuntza batean ikus daitekeela zer den giza talde batentzat garrantzitsua eta zer ez. Hizkuntza batek

adierazi dezake gizarte bat nola kokatzen den mundua-  
ren aurrean... Hizkuntza txikien kontra egiten dutenak  
ezjakinak dira edo, hori guztia jakinda ere, gorrotoak  
bizi ditu, eta kultura edo giza talde horiek desagerra-  
ratzea eta historiatic ezabatzea dute helburu.

### **Noiztik daramazu bertsolaritza munduan?**

Munduan? Nik bertsolaritza barruan daramat. Nire  
parte da, eta nire parte den heinean nirekin doa noan  
tokira noala. Ezagutzen ditudan pertsona, toki eta kul-  
turetatik ahalik eta gehien jasotzen saiatzen naiz, eta  
nik nire burua konplexurik eta arazorik gabe erakusten  
dut: nire hizkuntzarekin, nire afizioekin eta amorratzen  
nauten gauzeekin. Bidaiatzea da nire afizio handieneta-  
ko bat, eta erabat sorgintzen nau elkartruke horrek.

### **Zein girotan abesten duzu erosoen? Eta norekin?**

Edozein girotan abesten dut gustura, giroa bera ona  
bada. Bertsokide asko eta asko lagun minak ditut, eta

haiekin oso eroso abesten dut. Baina edozeinekin  
abesten dut pozik, denok baitugu elkarrekin zer ikasi  
eta zer gozatu. Gainera, bertsolaritza ez da abestea  
bakarrik: familia handi bat bezalakoa da. Kotxeko  
orduak konpartitzen ditugu, otorduak, nerbioak, pozak  
eta penak... Gozamina da, egia esan. Zortedun senti-  
tzen naiz.

### **Nola animatu dezakegu jendea euskara erabiltze- ra?**

Xabi Payak aipatu zuen lehengoan: jendea euskarara  
hurbildu nahi baduzu, ez ezazu euskara aipatu. Aipatu  
ezazu beste edozer euskaraz. Ez hizkuntza bera. Eus-  
karak mila ate zabaltzen ditu, eta ondorioz, ate horiek  
hurbildu behar zaizkio jendeari. Pentsatu dezatela “jo,  
euskaraz jakingo banu... bertso-saio horrekin gozatu  
ahalko nuke, antzezlan hori ikusi ahalko nuke, koadrila  
horretan integratu ahal izango nuke, liburu hori irakurri  
ahal izango nuke, pankarta horrek dioena ulertuko  
nuke, kanta horrekin barre  
egin ahal izango nuke, mutil  
horrekin maitemindu ahal  
izango nintzateke...” Ask  
dugu eskaintzeko, beste guz-  
tiek bezala. Ba, igarri dadila!



### **Uxue Alberdi**

(Gipuzkoarra)

Elgoibarkoa da bertsolari gazte hau. Bertsolaritzan,  
2007. urteko Gipuzkoako Txapelketako finalarrekoa  
jokatuko du. Gainera, idazle lanetan ere aritu da elgoi-  
bartarra, 2005eko Igartza Saria jaso zuen, *Aulki bat*  
*elurretan* izeneko proiektuarekin.



<http://gaztea.euskonews.com>

**Euskonews Gaztea**  
**Ateak zabalik dituzu.**








<http://gaztea.euskonews.com>



# Nazioarteko Graffiti Hiriak



**MIKEL MAILLE, KILMEN BORTAYROU DAGUERRE,  
LUCILE NOYER-LUCOT  
BAIONAKO BERNAT ETXEPARE LIZEOA,  
BATXILERGOKO LEHENENGO MAILAKO IKASLEAK**

**Gizakiak, sortu denetik kasik bere inguruko murrak marraztu eta tindatu ditu. Duela ia 40 urte, mugimendu berri bat sortu zen, New Yorkeko graffitia, gaur egun munduan zehar hedatu eta inposatu dena. Estilo horretan azpi talde ezberdinak aurki daitezke eta herri edo hirien arabera tindaketa mota ugari zabaldu eta garatu dira**

hitzak murruen gainean idazten. Pixkanaka horren hedatzeagatik, eta taldeen emendatzearengatik, beti besteetaz ezberdintzeko helburuarekin estetismoaren arrangura sortu zen. Laster azpitalde ezberdinak agertu ziren obra horietan:


**Tag-a**, horrek erran nahi baitu artistaren izenaren marrazkia, bere izenpedura.

Gehien hedatutakoa da, ilegalki egina baita, edonon eta idazkera sinpletik kaligrafiazko lan konplikatura joan daiteke.

**Graff-a.** Obra askoz ere garrantzitsuagoa da; kasu horretan letrak handiagoak, lodiagoak eta landuagoak dira estiloaren arabera. "Bloketaan", hizkiak karratu eta lodiak dira, usu kolore bakarrekoak. "Wild style"ean, aldiz, arte lan askoz ederragoak dira, kolore askorekin eginak, denbora asko eta tindaketa tekniken menperatze handia eskatzen dute.

Bestalde, artista batzuek gehienbat pertsonaiak edo beste marrazkiak egiten dituzte letrak erabili gabe. Horrela, tindalari askok tindaketa handi batean estiloak nahasten ahal dituzte, hitzak, pertsonaiak eta paisaiak. Kasu horretan eszenak aipatzen dira eta baimendutako murruetan eginak dira.

Beste tindalari batzu **pochoir** delakoak egiten dituzte. Hastapenean marrazki bat kartoi edo



**Graffiti** kulturak, bere kode propioak baditu. Gaur egun gehienbat ikusten den graffitia New Yorketik etorritakoa da. Horretan, tindalari bakoitzak ezizen bat badu eta izen hori ahal bezainbat lekutan idaztea entseatuko da, toki ahal bezain ikusgarri edo ukiezinak hautatuz beste tindalarien ezagutza egiteko. Batzuetan artistak taldeetan biltzen dira beren talde izena errazkiago eta fiteago hedatzeko murruetan zehar. Horrela talde batzuek kideak dituzte mundu osoan zehar eta oso ezagunak bilakatu dira graffiti inguruan (156 taldea adibidez). Taldeek ere obra handien egitea posible bilakarazten dute.

Graffiti newyorkarrean hastapeneko idazkera simpleak azpi-estilo ezberdinetan banandu dira. Bere izenak dion bezala New Yorken sortu zen 1980 urteetan. Hastapenean, pertsona batzuek beren "bandaren" edo lagun taldearen izena zabaldu nahi zuten eta horrela hasi ziren



**“Gaur egun gehienbat ikusten den graffiti New Yorketik etorritakoa da**



plastiko baten gainean marrazten dute, hori moztuz manera berezi batez eta ondotik karrikan nahi bezainbat tindatzen ahal dute. Teknika hori asko baliatua izan da eta baliatzen da mezuak pasarazteko, esaldiak paretetan idatziz. Baina artista batzuek egiazko obrak egiten dituzte eta graffitiak oso hurbil den aktibitate bezala kontsideratua da.

Munduan hedatu eta graffiti ezberdintzen hasi da lekuen arabera. Gaur egun hiri batzuetan tindaketa eszena oso garrantzitsuak atsemaiten dira.



## **New York**

New York, HipHop kulturaren eta ber denboran graffitiaren sort-hiria da. Arte mugimendu honen sortzea aski harrigarria izan da, bapatean, metroak marrazkiz beteak agertu ziren: Taki 183, Tracy 168, Stay High 149 (...) bezela. Baina hastapenean agertzen zirenak ez ziren graffitiak, baizik eta tag-ak. Urteekin, tag haiek landu dira eta hizki erraldoien forma hartu zuten. Ber denboran, haien helburua aldatu zen. Lehendabizi identitatearen hedatzea zen inportanteena, baina urteekin, alde artistikoak garrantzia hartu zuen eta edertasuna bilakatu da helburu nagusia. Biziki fite estilo ezberdinak sortzen dira baita tindatzile taldeak ere. Taldearen kideek ber izena hartzen dute eta beste taldeekin konkurrentzian sartzen dira. Adibidez, Soul Artists (SA) eta The Crazy Artists (TCA) taldeak.

1970 urteetan, graffitiaren kultura blokatua zen, ez zen gehiago aldatzen. Hamarkada horren amaieran, New York-eko graffiti arras zailtasunetan zen, metroak biziki zainduak baitziren. Orduan artea hedatzen da hiriaren auzo pobreen murruetan, ondotik Estatu Batuen beste hiri batzuetan, bereziki, Los Angeles, Chicago, Philadelphia eta Washingtonen, eta, azkenik, Europa, Paris, Londres, Berlin, Amsterdam eta Bartzelonan bereziki.

Garai honetan New York-en artea seroski hasten da graffitiari interesatzen eta honen ondorioz Lee Quinones, Futura 2000 eta Fab Five Freddy bezalako graffiti artistek haien obrak aurkezten dituzte New York-eko erakustoki ezagunetan. Azkenik, hiriaren artista klasiko batzuk lanean haste dira graffiti egiten duten batzuekin. Adibidez, Jenny Holzer eta Lady Pink.

## **Paris**

Parisen aurkitzen ziren lehen graffitiak beste mota batekoak ziren, 1968-eko maiatzaren gazte iraultzaren denboran. Mezu politikoak agertzen dira, poesia eta arte maila on batekin idatzia, filosofia, artea, literatura edo beste mota bateko ikasketak egiten dituzten gazteek zituztelako egiten. Adibidez, *désobéir d'abord: alors écrit sur les murs (Loi du 10 Mai 1968)* eta *j'aime pas écrire sur les murs*.

Berantago, 1970 urteetan Frantses bat arte berri honetaz inspiratu zen: afitxa marraztu batzu kolatzen





zituen etxe abandonatuetan; marrazkiek toki haietan bizi ziren jendeak erakusten ditu egiazko tamainan.

Urte batzuk berantago, blek le rat bezelakoak hedatzen dira hiriburuan pochoiren teknika erabiliz. Bestalde, Jérôme Mesnager bezalako artista batzuk pintura erabiltzen dute pochoir-rik gabe. Artista honek gizon xuriak pintatu zituen Seine-aren ondoan korrikan.

1982-1983 urteetan, New York-eko graffitia Parisen hedatzen da: Bando, Blitz, Lokiss, Scipion, Skki, Saho (...) bezelako artistak sortzen dira mugimendu hori segituz. Arte ilegal hau egiten da Seine-aren alboetan, Louvre-eko murruetan, Georges Pompidou zentroan, Stalingrad eta La Chapelle terrenuetan eta emeki banlieu/cités-etan hedatzen da.

Gaur egun, graffitiak egiten dituzten artista ezagunak frantses hiriburura etortzen dira, hala nola, Shoe, Mode 2, Jonone, Futura 2000, T-kid, A-one...

### **Berlin**

1961ean Berlineko murrua eraikia izan zen. Honek sin-

bolikoki, baita fisikoki, Europa, Alemania eta Berlin bitan zatitzen ditu Gerla Hotzaren garaian. Ekialdean, Alemaniarrak sistema gogor baten pean bizi dira eta ez dute murruez gertu izaiteko deretxorik. Mendebaldean aldiz, Alemania Federalean, biztanleak etortzen ahal dira murruren marraztera librok. Honek du bultzatu graffitia Berlinen, jende ugari haien mezuak agertaraztean murru famatu honetan. 1989eko, murruren haustea ez da izan Berlingar graffitiaren amaiera, arte hau oso hedatu eta garatu da graffitia hiriburuan. Gaur egun graffiti eszena inportanteak dira kokatzen Berlinen.

### **Bartzelona**

Espanian HipHop delako kultura berantago garatu da Europaren beste estatuei konparatuz. Baina egun arras garatua da, bereziki Bartzelonan. Horren ondorioz, graffiti ugari aurkitzen ahal dira hiriaren murruetan, gai ezberdinak nahasten dituztenak, hala nola soziala, politika, edertasuna eta HipHop kultura. Adibidez, El Pez Bartzelonako murruetako pertsonai garrantzitsu bat da.



# Homosexualitatea: naturaren kontra doan joera?



**IHINTZA ERREMUNDEGUY**  
*BAIONAKO FAKULTATEKO IKASLEA*

**N**ahiz eta usu bestelakorik pentsatu, homosexualitatea jokabide naturala eta franko hedatua da ornodunen artean. Sexu berekoen arteko harreman sexualak 450 espezieren artean hauteman izan dira, batez ere gizartean bizi direnen artean. Baina, eboluzioari interesatuz gero, hauxe datorkigu gogora: nolaz erreproduktioarekin bateraezin dirudien joera hau atxikia izan da belau-naldiz belaunaldi? Darwinen selekzio naturalaren esplika-zio bat eskatzen du honek. Biologiak homosexualitatea anomalia kaltegarritzat dauka, baina orduan nolaz du halako proportzioa populazioan?

Eboluzioaren prozesuak erreproduktzioa ekiditen duten geneak automatikoki eliminatzen ditu, hauek ez baitute ondorerik. Baina orduan nolaz posible da hainbeste espezieren baitan existitzea homosexualitatea? Darwinen teoriak sexualitatea ugalketara mugatzen du. Dударik gabe, egia da hainbat espezieentzat, baina nahi-

***“Izadian, maila desberdinetako bisexualtasuna konstatatzen dugu; gizakion artean aldiz homosexualen gutxiengo bat da bisexuala*** ”

ko sinplista dirudi ornodun sozialei dagokienez. Argi da gizakien kasuan ugalketa ez dela motibazio bakarra, eta emeak lortzeko arren arteko lehiaren suposizioak ez du homosexualitatea azaltzen.

Baina arazo batek dirau. Homosexualitatea eskusiboa bada ez da ondorerik. Izadian, maila desberdinetako bisexualtasuna konstatatzen dugu; gizakion artean aldiz homosexualen gutxiengo bat da bisexuala. Zergatik sistema dikotomiko hori? Badirudi kulturaren ondorioa dela, 1500 urteko diskriminazioari erantzunez sortu bateratzea. Alabaina, Aitzin aron, Grezian, Erromatar inperioan nahiz Asian, jokabide homosexualak ez ziren eskusiboak. Zesar “emazte guztien senar eta gizon guztien emazte” izendatua zen. Honela, argi



da jokabide sexualak ez direla Darwinen selekzio sexualaren bidez bakarrik azaltzen.

Freudi dagokionez, ez du sekula homosexualitatea psikoanalisisiko kontzeptu edo nozio propio gisa planteatu. Ez du disposizio sexual horretaz teoria espezifikorik egin. Izan ere, bere ustez, gizaki bakoitzaren baitan bada maskulino eta femeninoa, eta sexu bakoitzak beste sexuarena dena, gehiago ala gutxiago, gibelarazten du bere identitatea eraikitzeko. Honela, homosexualitatea aipatzerakoan, bakoitzak gure baitan integratu zerbait aipatzen dugu. Freudek ez du ongi ala gaizki den erraten, homosexualitatearen arrazoinak xerkatzen ditu, bere genesisia; eta heterosexualengan den homosexualitate isildua, eta neurosia eta paranoiaren arteko lotura erakusten du. Honela, Freudek homosexualitatea giza sexualitatearen unibertsoan integratzen du eta gizatartzen, hautu psikiko inkontziente gisa kontsideratzeko. Ediporen eta inkontzientearen doktrinaren arabe-




ra beraz, homosexualitatea bisexualitate humanoaren ondorio gisa, heterosexual guziengan den egoera gorde bat da.

XX. mendeko psikiatrikoentzat homosexualitatea inbertsio sexual bat izanen da, anomalia psikiko, men-

tal eta konstitutibo bat, identitate eta pertsonalitate arazo bat. 1970 urtera arte itxaron beharko da homosexualitatea ez gehiago eritasun gisa ikusteko, praktika sexual gisa baizik, eta ohartzeko homosexualitateak ezin duela pertsona baten identitatea laburbildu.



# Gazteon emantzipatzioa



**IRATXE GARRANZO, UNAI SALGADO, NEREA OLANO, ANDER ORGAZ, HAIZEA FERNANDEZ  
BILBOKO BEGOÑAZPI IKASTOLA**

**G**aur egungo gazteek independentzia bilatzen dogu, gazteriaren gehiengoak gurasoenetik joan nahi dau, etxe propioa bilatzen dau, baina hau lortzea ez da bate-re erraza izaten. Lehen jendea oso arin joaten zan etxetik, baina kasu gehienetan ez ziran bakarrik joaten, ezkondu ostean egiten eben alde etxetik eta familia sortzen eben askotan 25 urte euki baino lehen.

Gaur egun, ostera, 25 urte-rekin ikasketak amaitu barri doguz eta lan bila egoten da jende gehiena, beraz, geure izango dan etxea erostearena oraindik urrun geratzen jaku.

Gure gizartea asko aldatu da azken urteotan, eta gazteon lehentasunak ere bai; orain askoz beranduago joaten gara etxetik, bai, baina askoz beranduago hasten gara lanean, askoz ere beranduago amaitzen doguz ikasketak... e.a.

Gainera gaur egun etxetik joatea oso gauza konplexua da, etxebizitzak oso garestiak diralako, eta gazteek daukiezan soldata baxuekin, ia ezinezkoa da etxetik bakarrik joatea.

Etxetik joaterakoan irtenbide bakarra ez da etxe bat erostea, alokairuko pisuak ere bada-  
goz. Dana dala, gazte gehienek euren pisua erostea nahiago dabe, pisua alokatzea normalean bigarren aukera izaten da.

Azken batean, hilero diru kopuru bat ordainduko dabe eta nahiz eta pila bat hilabetez ordaintzen egon, inoiz ez da euren izango.

Emantzipatuta dagozenetatik, neskak mutilak baino gehiago dira, eta gehienak ezkongabeak.

Gazteek arazo honen aurrean daben jarrera gurasoen arabera ere bada, era askotako jarrerak dagozalako. Alde batetik, seme-alabei oso lotuta dagozan

gurasoak dagoz; honeek seme-alabak etxean euki gura dabez pena handia emoten deuselako euren gandik urrun egotea. Beste alde batetik, guztiz kontrako jarrera daben gurasoak dagoz, seme-alabak etxetik joatea nahi dabenak, baina ez maite ez dabezelako, baizik eta horretarako momentua heldu dala ikusten dabelako.

Gurasoek ez ezik, gazteek ere jarrera ezberdinak aurkezten dabez emantzipazioaren aurrean; batzuk etxetik joatearen guztiz alde dagoz arrazoi desberdinengaitik: etxean arazoak dabezelako, independenteak dirala sentitu nahi dabelako, edo euren etxea izateko gogoia daukielako, beste barik. Beste batzuek, ostera, gurasoenean gelditu gura dabe 35 urte izan arte, honen arrazoiak ere era askotakoak dira, baina gehien bat, bertan oso eroso bizi diralako izaten da.

Kasu hau hainbat gurasoren tzat jasanezina da, euren seme-alabek etxetik joateko adin eta egoera ekonomiko aproposa daukielako, baina hala ere ez diralako joaten.

Gazteen jarrera, moduren batean gurasoen errua dala esan daikegu, txikitatik euki daben heziketaren arabera dala. Ume bati txikitatik autonomia eta erantzukizuna bultzatu badeutsazu, nagusia danean esne-mamitan hazi daben ume

batek baino independentzia maila handiagoa izango dau.

Emantzipatzea ere ikasi beharreko prosezua da. Umeen sormena eta autonomia bultzatu beharreko gauza da, ahal dauanaz arduratzen ikasi behar dau, beti ere egin beharrekoa bere adinari egokituz.

Esaterako, umeek lokarriak euren kaxa lotzea, bakarrik janztea, janariak prestatzea eta bakarrik jaten







***“Gainera gaur egun etxetik joatea oso gauza konplexua da, etxebizitzak oso garestiak diralako, eta gazteek daukiezan soldata baxuekin, ia ezinezkoa da etxetik bakarrik joatea***



jakitea, euren gela jasotzea edo beste gauza asko, oso garrantzitsuak dira umeen heziketa egokirako.

Horrela, bere nortasuna eta etxeko bizitza–erritimoa errespetatzen ikastearekin batera, arauak (bere etxekoak) jarraitzen eta bere arazoak konpontzen ikasiko dau. Hau da, bere autonomia garatzen dau. Hau ondo egiteko, hainbat puntu aintzat hartzekoak izango litzatekez; seme–alaba gugandik oso desberdina dan beste pertsona bat dala izan behar dogu kontuan, arreta eskaini behar jake seme–alabei, baina lar babestu barik.

Gaur egun etxetik joateko batez besteko adina 28 urtekoa da nesken kasuan, eta 30 urtekoa barriz, mutilen kasuan. Beste herrialde batzuetan, ohikoa da oso

gazte joatea etxetik. Amerikako Estatu Batuetan esaterako, unibertsitatera joateko etxetik joaten dira, beraz, oso bizitza ezbardina daukie, gurasoengandik banatu eta guttiz independente baitira.

Ondorio moduan zera esan daikegu, gaur egun etxetik joatea ez dala gauza batere erraza, gazteriaren zati batek ez daualako nahi, eta nahi dabenek, ez dabelako egoera ekonomiko aproposa izaten. Etxeak lar garestiak dira, eta lanetan soldata oso baxuak ordaintzen dabez. Lortuko ete dogu zeozer orain dala gutxi onartu daben diru laguntzei esker? Nahikoa izango dabe 210? jasotzea 22 eta 30 urte bitarteko gazteek etxe bat alokatzera animatzeko?





# Euskal piratak



ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



---

***Nork ez du txikitan amets egin pirata izatearekin? Milaka abentura bizi izan ditugu filmak ikusiz eta liburuak irakurriz. Barkuak, itsasoa, abordatzeak, piraten kantuak...***

***Erromantizismo kutsua izan dezakeela ezin uka daiteke.***

***Jakin badakigu batez ere praktika horiek XVI eta XVIII. mendeetan zehar eman zirela, baina gaur egun, itsaslapurrak egon badaude. Noski, modernoagoak dira. Azken albistea Somaliatik etorri zaigu, Bermeoko Plaia de Bakio izeneko itsasontzia bahitu baitzuten 2008ko apirilaren 20an. Eta horiek ez dute ezpatarik erabili, haiek bide modernoagoak erabiliz, granada-jaurtigailuekin mehatxatu dituzte itsasontziko tripulatzailak.***

***Baina ondorengo lerroetan betiko piratak hartuko ditugu erreferentzia eta haiei buruzko xehetasun batzuk azalduko ditugu***

---

## Pirata eta kortsarioak

Begiko partxea, lora, rona eta ezpatak etortzen zaizkigu burura piratez hitz egiten dugunean, horiek baitira liburu eta pelikulek sarrien jasotzen dituzten deskribapenak. Denok dakigu zer ziren piratak: estatuen baimenik gabe itsasoan lapurtzen zuten pertsonak ziren. Normalean, nazioarteko urak izaten ziren haien ekimenen eszenatoki, inorenak ez ziren uretan aritzen baitziren. Itsasontzietako zama ostu eta sarritan bidaiariak esklabo hartzen zituzten.

Baziren ordea, estatu burujabe baten baimenarekin, hots, soldatapean aritzen zirenak ere. Horiei, kortsario deitzen zitzairen. Normalean, nazio edo estatu horren etsaiak zirenen aurka egiten zuten lapurreta. Maiz, pirata zein kortsario hitzak ez dira bereizten, xehetasun txiekiek aldentzen baitituzte.

Munduko toki gehienetan aurki zitezkeen pirata edo kortsarioak eta indar gehien Kolon Amerikara iritsi zenetik XVIII. mendera arte izan zuten, gutxi gorabehera. Eta pelikulek Karibeko itsaslapurrak erakutsi dizkiguten arren, euskaldunak ez ziren arrotzak lanbide horretan. Bai kanpoan eta baita etxean ere, beste itsasontzi batzuk erasotzen zituzten eta hala, jatekoa lortu.

XVIII. mendean itsaslapurretak eman ziren euskal kostan. Esaterako, 1658an, Hondarribia eta Donostia-ko armadore talde batek Holandako Esperanza deitu-

tako merkantzia-ontzia eraso zuten. Bestalde, erreferentzia-datu batzuen arabera, Bizkaiko Golkoa kortsarioen ekin-tzen testigu izan zen 1672an. Orduan, Holandako Gerra deiturikoa bizi zen, eta Espainia eta Holanda bat eginik zeuden Frantziaren aurka.

Halaber, Baionan jaiotako Antoine Balanqué kortsarioak Liverpooleko Salle itsasontzia hartu zuen 1757ko ekainaren

18an. Ontziak azukre, tafia eta iltzea (espeziak) garraiatzen zituen. Hogeita lau kanoietako itsasontzi bat erabili zuen baionarrak eta berarekin 350 pertsona aritu ziren itsaslapurretan. Noski, saritu egin zuten Balanqué bere ekimen eta izandako garaipenengatik.

Makina bat erreferentzia aurki daitezke euskal piraten inguruan. Abentura bila itsasoratzen ziren, baimenarekin edo gabe, eta erresistentzia topatzen zuten kasu gehienetan. Abilezia, estrategia eta zortea aldeko izatea gerta zekiekeen onena zen. Arriskutsuak batzuentzat, beste askorentzat heroiak, askotarik sentimenduak eragiten zituzten itsaslapurrek. Dakiguna da, gure historiako zati bihurtu zirela asko.

***“Baziren ordea, estatu burujabe baten baimenarekin, hots, soldatapean aritzen zirenak ere. Horiei, kortsario deitzen zitzairen***

”



# Oiartzungo kuestazioa. Inauterien iragana eta oraina



**ANE BADIOLA, OLATZ MITXELENA, OIANE ORKAIZAGIRRE, JON TORRES**  
***ERRENTERIAKO OIARTZO IKASTETXEA, BATXILERGOKO IKASLEAK***

### 1948ko kuestazioa

Oiartzun herriarekin loturarik xumeena ere eduki duenari, Intxixua, akelarrea, kuestazioa... hitzak ez zaizkio batere arrotzak egingo. Ez hori bakarrik, aho ezberdinetatik entzunak izango ditu seguruenik, herriaren historia eta kulturaren altxor preziatuenetariko bat baitira; mitologiaren eta errealtatearen arteko muga lausotzen duten altxorrak. Kultur ondare aberatsa da oiartzuarren inauteritako festa, belaunaldiz belaunaldi, aiton-amonen eskuetatik bilobenganaino iritsi dena. Gaur egun indar biziz mantentzen den festa da inauteriena, baina ezin uka dezakegu, ohitura bat mantentzeak zailtasunik baduenik, denbora krudel samarra izaten baita maiz. Oztopo eta traba horiek guztiak gainditzeko dago Ihote Berreskuratzaile Taldea, urterik urte inauteriak antolatu eta indartzen dituen taldea. Herriarrez osaturik dago, boluntario modura aritzen diren adin ezberdinetako herritarrez eta taldeak duen eragina herriko zirrikitu guztietara ailegatzen da. Herritarrek egiten dute lan, herrian eta herriarentzat.

### Oiartzungo intxixua

Oiartzungo inauterien ospea herri mailakoa bada ere, indartsua eta berezkoa da. Gainera, ohitura oiartzuarrek sortu, bideratu eta mantendua izan da, herritarrek antolatua eta herritarrek egina, alegia. Beraz, ez da harrizkoa oiartzuarrek bertako inauteriez harro egotea. Oinarrizko baliabideak soilik erabiliz, antzinako ondare bat berreskuratu eta eguneratzen jakin dute. Honek egiten du jai hain berezia. Aipagarria da nola duela berrogei urte egiten zen horri, aldaketa gutxi batzuk eginez, gaur egungo joeren eta gustuen artean lekutxo bat bilatu dioten. Urteen poderioz, mila ohitura eta tradizio lekuz kanpo geratu dira gizartean, baina Oiartzungo inauteriek, tinko eutsi diote bere lekuari.

Aipatu dugun moduan, zenbait aldaketa egitea beharrezkoa izan da. Hala ere, ohituraren ildo eta hari

nagusia uneoro errespetatu dira. Kuestazioa da Oiartzungo inauterien oinarria. Baserriz baserri eskean aritzean datza kuestazioa.

Duela berrogei bat urte, gure aiton-amonek ere egiten zuten. Taldetan bildu eta etxez etxe eskean ibiltzen ziren herriko gazteak, nor bere auzoan. Nagusiki janaria zen eskatzen zutena: babarrunak, intxaurreak, gazta, odolkia, haragia... baina edariak ere izaten zuten bere lekua, batez ere, ardoak eta sagardoak. Gainera, mitoen esanei jarraituz, erratzarekin joan eta etxe atariak errazten aritzen ziren, izpiritu txarrak uxatu eta bertakoei urte osorako zorte ona opatzeko. Hau zen etxekoei beren eskuzabaltasuna eskerzeko erabiltzen zuten bidea. Era berean, eguna alaitze aldera edo, eskura zituzten musika tresnak hartuta, nola trikitixa, txistua... zein festa kutsua sor zezakeen beste edozein tresna; kantuan eta dantzan aritzen ziren. Etxekoen umorearen edo dantzarien trebeziaren arabera, hamaiketaren bat ere jasotzen zuten gazteek. Gastatu ez ezik, irabazi ere egin behar da! Beraz, goiz osoan gora eta behera ibili ostean, auzokideak bertako plazan elkartu eta bildutako janariarekin bazkari eder bat egiten zuten, nahiz eta aurretik ere tripa nahiko betea zuten.

***“Urteen poderioz, mila ohitura eta tradizio lekuz kanpo geratu dira gizartean, baina Oiartzungo inauteriek, tinko eutsi diote bere lekuari***



2004ko kuestazioa

### 2004ko kuestazioa

Gaur egun, oiartzuarrek kuestazioa egiten jarraitzen dute. Bada norbere auzoan taldea ateratzea lortzen duenik, baina batzuetan taldea osatzen ez denez, herriko gazte guztiak bildu eta auzotan banatzen dira, denak helburu berarekin: baserriz baserri, musika tresnak lagun, dantzan aritu eta trukean janari apurren bat edo diru pixka bat biltzea. Ohiturari jarraituz poxpolin jantziz joaten dira neskak, eta aureskulari mutilak, baina inauteriak direla aitzakia hartuta, bada poxpolin janztera animatzen den mutilik, eta baita, aureskulari janzten den neskarik ere. Gehienetan zain izaten dituzte baserritarrek, urteroko zita baita inauterietako larunbat goizean kuestazioan





dabiltzan herritarrei hamaiaketa-ko on bat ateratzea eta eguerdi partean egingo duten bazkaria ordaintzeko sos batzuk ematea. Izan ere, ohiturari eusten diote, baina den-denean ezin! Eskean bildutako jakiekin bazkaria prestatzea baino nahiago dute denak batera elkarte edo sagardotegiren batean bildu eta merezi duten deskantsua hartuz sabela ondo betetzea. Beraz, ondo bazkaldu eta festa giroak etenik gabe jarraitzen du, kantuan eta dantzan, bertsotan, musikaz bazterrak alaituz, edo kontu kontari. Beste behin ere aitzakiarik txikiena nahikoa, bazterrak euskal giroz blaitzeko. Hala ere, goizeko ekintza hau baino garrantzitsuagoa ari da bilakatzen arratsaldean herriko plazan egiten den ikuskizuna.

Izan ere, bada, kuestazioaz gain, festari jarraipena emateko larunbat eta igande ilunabarretan egiten den beste ikuskizun bat ere, duela hamabost bat urte Oiartzuar talde batek izan zuen burutazioa zela eta ospatzen dena.

Inauteriak inguruan, Oiartzungo Girizia Mendi Taldekoek irteera bat egin zuten Aiako Harriak aldera. Bueltan heldu zirela behi larru batekin egin zuten topo eta erdi jolasean, brometan hasita, inauterietan larru zahar harekin eta geroago lortuko zituzten beste batzuekin mozorrotzea otu zitzairen, zer edo zer desberdina egitearren. Horrela, inauteriei buruz ideia gehiago sortuz joan ziren, goizeko kuestazioaz gain ez baitzuten beste ezer egiten, eta Ihote Berreskuratzaile Taldea

osatzea erabaki zuten, inauterietako festa indartzearen. Urte hartan behi larruz mozorrotuta atera ziren eta gau partean ardi jatea egin zuten Kontzejupean bilduta. Esperientzia ona izan zela eta, hurrengo urterako hobeto prestatzen hasi ziren, jaiari forma ematen, handik eta hemendik ideiak biltzen: inauterietako pertsonaia mitologikoa ere asmatu zuten, Intxi-xua, eta honek dakartzan istorio eta mito guztiak. Hamabost urte hauetan

zehar, ideia gehiago batzen joan dira, jaiari birtze biltzen, herri guztira eta herritar guztiei zabaltzen. Besteak beste, musikariak, dantzariak, sorginak... ekin diote jaiari parte hartzeari, akelarre itxura emanez.

Beraz, goizeko kuestazioaren eta eguerdiko bazkariaren ondoren, arratsaldeko zazpiak aldean herriko dantzariak ematen diote festari segida. Plazan biltzen diren herritarrei azeri-dantza eta sorgin-dantza eskaintzen dizkiete. Ondoren, Aiako Harritik datozen Intxixuen eta sorginen bila joaten dira denak, irrintzika eta oihuka, mitologiak eta gizarte zibilizatuak bat egiteko. Horrela, menditik datozenak herritarren festan sartu eta denen artean akelarrea egiten dute, plazaren erdian pizten duten suaren inguruan. Negua bukatu dela eta udaberriaren etorrera ospatuz, musikaren erritmo bizi-tan galduta dantzan jarraitzen dute. Intxixu eta sorginek, inauterietako asteburua herrian igaro ondoren, jaiari bukaera emateko, igande ilunabarrean berriro bat egiten dute herritarrekin plazan, heldu den urtera arte agurtzeko. Hurrengo inauteriak iritsi bitartean, Intxixu eta sorginak Aiako Harriari ibiliko dira, euren kobazuluan sartuta, eta herritarrek gizarte zibilizatuaren arrastaka, presaka jarraituko dute.

Ikuskizunak ikuskizun, Ihote Berreskuratzaile Taldea hurrengo urterako inauteriak prestatzen hasiko da negua hurbiltzearekin batera, antzinako esentziaren sustraiei heldu eta Oiartzunen inauteriak ospatzeko: lehen egiten zen kuestazioaren harira, ahalik eta jaiari parte hartzaileena bultzatuz, lehenagokoari heldu eta gaurkotasan kutsua gehituz, herritarrek herrian eta herriarentzat egindako festa ospatzeko.



# Abenturak trenez: Singapurretik Arabara



Testua eta argazkiak:  
JAIZKI FONTANEDA ELGUEA ETA  
SUSANA RODRIGUEZ

---

***Jaizki Fontaneda eta Susana Rodriguez gasteiztarrek zazpi hilabete eman zituzten Singapurretik etxerako bidea egiten. Horretarako, garraiobide berezia erabili zuten: trena; milaka bizipenen testigu***

---

## **Gasteiz - Singapur**

*Hegazkinez 16 ordu; hots, afari bat, gosari bat, bi film eta loaldi labur bat*



Gasteizen goiz esnatu, kalean euria, 5 gradu, berokia jantzita; biharamunean Singapurren agertzen gara, 30 gradu, eguzkia distiratsu, berokia soberan. Aldaketa latz honek zorabiatu egiten gaitu.

Hegazkinez bidaiatu dugunetan, pantailako ibilbidea begiratzen ari izan gara erne-erne altitudea, kanpoko tenperatura eta azpian daukagun herria zein den jakiteko... Baina bisitatu ezinik hain hurbil gure azpian egon diren herriak irudikatu behar izan ditugu. Oso mingarria da hainbestetan desiratutako herrialdeak eskuragarri daudela jakitea, ukitu ezinik, gure oinen azpiko zenbait kilometrotara.

Etixerako itzulia beste modu batean egin behar genuela argi ikusten genuen Singapurerrako hegaldia hartzen genueneko. Tarteko kulturen, arrazen eta ohituren apurkako aldaketa dastatzeko asmoarekin ekin genion abenturari. Bi urte eta erdi Singapurren pasatu eta gero, behingoz bizimodu lasaia egingo genuen.

### **Singapur - Gasteiz**

*7 hilabete, 15 estatutan zehar ehunka lagun, milaka kilometro eta makina bat tren-txartel.*

Bai, 7 hilabete luzez Gasteizera trenez bidaiatzea genuen ametsa, garraibide honek bertako jendearekin harremanetan jartzeko aukera ezin hobea eskaintzen baitzigun, eroso eta merkea izateaz aparte.

Hasieratik konturatu ginen trenak herrialdeen isla izan daitezkeela eta gure gida-liburuko lehenengo kapitulu bilakatu ziren, non herrialde horietan ikusi eta sentitu behar genuenaren aperitibo bat zerbitzitzen ziguten. Trenaren giroa, abiadura, txukuntasuna, antolakuntza, jendearen irribarrearen luzera, begiratzaillearen jarrera eta hone-lako datuak oso ekuazio korapilatsu batean sartuta, beste aldetik herrialdearen itxura xumea ateratzen zitzaigun. Esate baterako, Kanbodian trenak oinarritzkoak dira; edo oinarritzkoa dela esan beharko genuke, tren bakarra baitaukate bi hiri nagusien arteko bidea 20 km/h-ko abiadurarekin nekez egiten duena, astean birritan bakarrik. Hauxe da herri honen patua.

Txinan, berriz, trenak azkarrak dira oso, eta jendez gainezka ibiltzen dira txinatar lurraldean zehar harat-honat, denbora galtzea bekaturik handienetariko bat baita herrialde hartan. Malaysian, bestalde, ez dira geldoak ezta azkarrak ere, toki batetik bestera tarte onargarri batean eraman gintuzten, lasaiak direla esatea egokiena litzateke. Malaysiarrak bezain lasaiak; matxura batek trena 4 orduz geldiarazi zuenean, inork ez zuen erreklamazio-orririk eskatu, baizik eta eguna jantoki-bagoian te goxoa edaten edo lagunekin hizketan eman zuten. Alemanian eta Austrian, aldiz, txartelak askotan erakutsi behar izan genituen, begiraleak jarleku egokian geundela egiazta zezan.

Treanean sartzen ginen bakoitzean moldatzeko ahale-





ginak egin behar genituen: gure eserlekuak non zeuden, motxilak non jarri, treneko lagunak nolakoak ote ziren, bero ala hotz zegoen? Baina ordubete geroago etxean bezala sentitzen ginen. Gero, trenetik ateratzeko orduan izugarri kostatzen zitzaigun geltokira ateratzea, hiri berri batera, hizkuntza berri batera, aurpegi berri batzuetara moldatu eta logela bilatzearen. Honez gainera, batzuetan, adiskide egin genituen bidaia-lagunak uztea ere gogorra zen, Siberiatik etxera bueltan zetozen dagestandar langile batzuk kasu, haiekin ordu luze batzuetan partxisean jolasten irakatsi eta gero. Edo agurtzeko sagar bat eskaini zigun andrea, Mongoliatik Errusiara kontrabandoko zenbait botila vodka sartzen saiatzen zenean lagundu geniolako.

Laster ohitu ginen treneko triki-trakara: Vietnamen epela, Frantziar arina, Mongolian zaratatsua, Tailandian

**“7 hilabete, 15 estatutan zehar ehunka lagun, milaka kilometro eta makina bat tren-txartel**

”

umela eta Errumanian aldakorra. Irribarreterara ere ohitu ginen, eta Europara hurbildu ahala hauen desagertzea nabaritu genuen, baina ezkutatuta besterik ez zeuden, hurbileko neguak zekarren hotzagatik.

Gure bidaia kilometroz kilometro eginez joan zen, gure bloga bezala, gero eta pasadizo eta argazki gehiagoz handitzen, bidaia osoan zehar lanpetuta eduki gintuen eta.

Gure barruko puskatxo bat leku haietan geratu baino, leku haietako guztietako puskatxo bana gugan eta betiko geratu zela sentitu genuen, eta guk egindako argazkiek gogoratzen lagunduko digute, harik eta berriro bisitatzeko aukera datorkigun arte.

Bukatzeko, Gontzal Fontanedari eskertu nahiko genioke idazlan hau osatzeko eman digun laguntza.



<http://gaztea.euskonews.com>

**Euskonews Gaztea**

**Ateak zabalik dituzu.**

